



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 22a

8 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Makina, aparatu eta instalazioak erabiltzeko aurrekontu-lerroa ezartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Goardia Zibileko kideak Foruzaingoaren egituran sartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Ondasun higigarrien zaharberritzea esleitzeko irizpideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- DBH ikastetxe publikoetan talde bereziak sortzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Zerga-erreformak Foru Ogasunari erakarriko dion dirubilketa-kostuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Beste ospitale batzuetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- “Lurzoru, etxebizitza eta eraikinen salmenta” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- “Etxebizitzetarako jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alogera)” aurrekontu kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- “Alogera-etxebizitzak sustatzeko jarduketak Tuterako hirigune historikoan” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- “Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoentzat dirulaguntzak” aurrekontu kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- “Naturguneak mantentzea eta habitat-ak hobetzea” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- C motako meningitisari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- “Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko planak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- “Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Belate eta Almandozko tunelak bukatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Belate eta Almandozko tunelak irekitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- “Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” aurrekontu kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- “Endekaturiko inguruen leheneratzea eta ingurugiro-eraginen zuzenketa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- “Lurzoruen deskontaminazioa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda. Epaimahaiaren osaketa. Probak hasteko eguna (28. or.).

F Sails:
GALDERAK

Makina, aparatu eta instalazioak erabiltzeko aurrekontu-lerroa ezartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak makina, aparatu eta instalazioak erabiltzeko aurrekontu-lerroa ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 21eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 6an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du langileek makina, aparatu eta instalazioak erabiltzeko segurtasun eta osasun-xedapen gutxienezkoen buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta

Lan Kontseilari den Ramón Bultó Llevat jaunaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak hainbat kontusail aurreikusi ditu 1998rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuan, lehentasunezko dirulaguntza emateko enpresa txiki eta ertainei, makinak eta instalazioak arautegi berriaren arabera babestu eta moldatzearen burutu dezaketen egokitzapenentzako, eta baita eraikuntza eta erauzpen jardueren enpresei ere, talde-babeseko baliabideetan egin inbertsioengatik. Kontusailok 100 milioi pezeta egiten dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoak xedaturikoa betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 6an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Instituto Técnico y de Gestión Ganadero izenekoak hazia merkaturatzeko egindako jardueri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Instituto Técnico y de Gestión Ganadero izenekoak hazia merkaturatzeko egindako jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin

agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkarguneko Parlamentari Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Instituto Técnico y de Gestión Ganadero izenekoak hazia merkaturatzeko egindako jardueri buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikularen eta hurrengo en babespean:

Hurrengoak bultzatu nahi ditu Institutuak hazijartzearen bitartez: ernaltze-sistemak, azienden osasun-hobekuntza, ustiategiaren gobernua arazoizko egitea, azia-taldeko ekoizpen-etekin handitu eta azken ekoizpenaren kalitatea hobetzea. Hautapen eta hobekuntza zentroek nahikoa kontrastatu dituzten eskema genetikoetan oinarritzen da Institutuaren zeregin hori. Halaxe gertatu da ardi latxaren eta Nafarroako arrazakoaren hobekuntza genetikorako elkarteetan, zerri-aziendako GENE+ eskema genetikoan eta untxietan, Frantziako Grimaud Freres-en Hyplusen arren

kasuan. Erakunde eta eskema horietan guztietan ari da ITGG hazi-jartzea erabiltzeko.

Alor horretan zabalkundea eta sartzeari izateko eta abeltzainak hazi-jartzea erabiltzeko prestatze-lanean dihardu ITGG delakoak, ardi, zerri eta untzi azienekin lotutako jardueretan, eta laster ekingo dio zaldi-aziendari (aplikatzeko teknikak prest izan bezain laister). Zeregin horiek guztiak teknikari espezialistek burutzen dituzte eta enpresa pribatuak nekez arduratuko dira horietaz.

I+G proiektuak direnez, Nafarroako Gobernuak finantzatu ditu eta baita Europako Batasunak ere, 5B helburuko eskualdeko ekintza programaren bitartez. Oskotzeko hautatze eta multiplikazio zentroak horretarako baldintzak bete egiten ditu bere kokapena dela-eta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat.

Iruñean, 1997ko azaroaren 3an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

Goardia Zibileko kideak Foruzaingoaren egituraren sartzeari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Goardia Zibileko kideak Foruzaingoaren egituraren sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 3ko 71. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkarguneko Parlamentari Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak galdera egin du, Goardia Zibileko kideak Foruzaingoaren egituraren sartzeari buruz. Lehendakari eta Barne Kontseilariak haxe darantzu, hori dela-eta:

1. Zenbat goardia zibil sartuko dira Foruzaingoan?

2. Noiz eta nola gauzatuko da sarrera hori?

3. Zer nolako sarrera-baldintzekin sartuko dira foru-funtzio publikoan?

4. Zer nolako erraztasun emango zaie Goardia Zibileko kideei Foruzaingoan sar daitezen?

5. Zein da Barne Kontseilariak aipaturiko formula eskuzabala?

Lehendakari eta Barne Kontseilari honek 1997ko urriaren 16an komunikabide bati egin zizkion adierazpenak asmoen aitopene hutsa eta bidezkoa besterik ez dira, eta bere horretan ulertu behar dira, hain justu.

Esandakoa sakonduz, Kontseilariaren asmoa baino ez zuten adierazten aipatu aitopene, eta beraz, Nafarroako Gobernuari haxe proposatzeko asmoa: bere garaian, eta Foruzaingoak trafikoeskumen osoak bereganatzen dituen neurrian, Goardia Zibileko funtzionarioen kopuru txiki bat Foruzaingoan sartzeko aukera azter dezala, Nafarroan erroturik izateagatik zeregin horietan berberetan aritu dira-eta. Hori guztia, jakina, horren

moduko prozesu batek dituen berezitasunak kontuan hartuta, erabakia, bere garaian, lehenbizi Nafarroako Gobernuaren onarpenaren menpe uztearen kaltetan gabe, Nafarroako Parlamentuari helarazteko, gero.

Horiek horrela, ezinezko da Juan Cruz Alli Aranguren jaunak egindako galderaren baitan diren gai zehatzagoei erantzunik ematea, orain-

goz, behintzat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 11n

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Ondasun higigarrien zaharberritzea esleitzeko irizpideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ondasun higigarrien zaharberritzea esleitzeko irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 21eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ondasun zaharberritzeko enpresei obrak esleitzearekin zerikusia duten hainbat punturi buruz egindako galderari erantzunez, honako hau agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

1.- Galderak osorik ez dagoela ematen du; baldintzak aldatu egin direla suposatzen da. Honi buruz, zera esan behar da: ez dela ezertxo ere aldatu. Kultura Zuzendaritza Nagusia ondasun higigarrien zaharberritzea zuzenean kontratatzen hasi denean, baldintza-sorta bat prestatzeari ekin zaio, zaharberritze-enpresen artean aukerarik onena egiteko.

2.- Nafarroako Museoko Zuzendaria Doktorea da Filosofia eta Letretan, eta, beste meritu eta karguren artean, honako hauek ditu: Kultura Ministerioako Museoen Goi Batzordeko Kidea (1979-1985), Nafarroako Historiari buruzko III. Biltzar Orokorreko Batzorde Zientifikoko Lehendakaria, Museoen Nazioarteko Kontseiluko Espainiar Batzordeko Lehendakariordea, eta bertako kidea

1986tik, eta Trabajos de Arqueología de Navarra aldizkari zuzendaria.

3.- Argi dago ezetz. Ondasun higigarrien gainean eta %100ean Vianako Printzea Erakundeak egindako hiru kontratazioetatik, bi egoitza soziala Madrilen daukan Coresal enpresari esleitu zaizkio, eta bat CCRri. Gainera, CCR enpresa ezin izan da Otsagabiako erretoa zaharberritzeko lizitaziora aurkeztu, zeren, Kontratuei buruzko Legea betez, 10 milioiko kopurua gaindituz gero enpresa-sailkapena galdatzen baitzen, eta ez zeukan horrelakorik.

Bestalde, CCR enpresa ez da tituludunak ekar ditzakeen bakarra. Nafarroan bakarrik badira hainbat enpresa hori egin dezaketenak, Artres eta B. Sagasti-ren enpresa kasu. Horiek ondasun higigarriak zaharberritzeko ere kontratatuak izan dira. Halaber, badaude profesionalak, beren kontura lan egiten dutenak, titulu pertsonalean eta egoki den titulazioarekin.

Beraz, ondoriozta daiteke inongo enpresaren alde egiteko asmorik ez dela izan, eta bai, ordea, Nafarroako ondare historiko eta artistikoan garrantzitsuenetarikoen artean dauden artelan batzuentzat profesionalik onenak lortzeko nahia izan dutela teknikari eta zuzendariak. Galdera honen zergatia ezin da ongi ulertu, interes partikular batzuen alde egitearena izan ezean (posizio ulergaitza, gauza publikoa zaindu behar duen pertsona batengan).

Nafarroako Parlamentuko erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dut hau.

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

DBH ikastetxe publikoetan talde bereziak sortzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak DBH ikastetxe publikoetan talde bereziak sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 21eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak DBHko ikastetxe publikoetan talde bereziak sortzeari buruz egin duen galderari erantzuteko, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Joan den ikasturtean, Zuzendari Nagusiak informazio hori jendaurrera eman zuenean, hezkuntza-neurri hori epe ertainean diseinatzeko aintzat hartu behar ziren zenbaki orokorrak erabiltzen ari ginen. Neurri horretara bildu daitezkeen ikaslearen profilararen arabera, talde kopuru bat lortu zen, bai ikastetxe publikoei bai ikastetxe pribatu itunduak dagokienez.

Hori bai, talde horiek ikasturte honetan antolatzeko, ikastetxeen eskaerak hartu dira aintzat. Hamaika ikastetxe publikok eskatu dute baimena Hezkuntza Departamentuan, hamabi talde egiteko.

2. Foru Dekretuan argi daude ikasleak Curriculum Egokituko Ataletara atxikitzea erabakitze baldintzak: eskolan atzerapen nabarmena eta motibazio eza, eta aldi berean ikasle-taldekideekin elkarbizitzeko arazoak dituzten ikasleak dira.

Honako hauek dira jarraitu diren izapideak:

a) Kasu guztietan ebaluazio batzarrean bilduriko irakasleen txostena egon beharko da, adieraziz ebaluazio pedagogikoari jarraituz, komenigarria dela neurri hori hartzea.

b) Kasu guztietan, talde zuzendariak txosten hori alderatu du eta ikaslearen gurasoekin hitz egin du egoeraren berri emateko. Kasu askotan, gainera, orientatzailearen txostena ere badago.

Dena den, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak txostenak berraztertze eskatu du, egiazta-

tzeko erabakia egokia den kasu guztietan edo komenigarri ote den ikasle bat edo beste gela aruntara itzultzea.

3. Ikasle hauek jarraitzen duten curriculum Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoaren egokitzapena da. Helburu orokorrak egokitu dira ikaslearen beharretara erantzuteko, eta arloak hiru eremu zabaletan berrantolatu dira: batakoa izatera praktikoa izanen du, besteak zientzia eta matematikaren helburu eta edukiak bilduko ditu, eta azkenak hizkuntza eta gizarte gaien edukiak hartuko ditu barne. Gainera Gorputz Heziketa, Erljioa/H.J.A. eta tutoretzako jarduerak.

4. Ikastetxeetan prestatu diren lekuek zuzen betetzen dute ezarritako helburua.

5. Profil berezia diogunean, burutu duten eginkizunarekin loturiko irizpideen bidez hautaturiko irakasleak direla esan nahi dugu.

Horretarako, aintzat hartu dira irakasleek antzeko lanpostuetan izan duten eskarmentua eta irakasleak jaso duen prestakuntza.

6. Berariazko prestakuntza plan bat prestatu da irakasle horien prestakuntza beharrak betetzeko. Planak 31 orduko fase intentsiboa hartzen du barne. Ikasturtean zehar irakasleentzako lau mintegi iraunkor antolatu dira eta hamabostean behin bilerak arazoak aztertze, esperientziak trukatzeko eta hezkuntza materialak egokitu edo lantzeko. Lanak gainbegiratzeko ardurak hartuko duen psikiatra bat ere egonen da, hiru hilabete behin ikastetxe bakoitzeko bi arduradunekin bilduko dena. Azkenik, bi adituk aholkularitza lana egingen dute ikastetxeetan, egoera bakoitzari erantzun pertsonalizatua ematen saiatuz.

7. 12 behin-behineko irakasle daude, talde hauetan irakasteko lanetan arituko direnen % 25 egiten dutenak.

8. Ikastetxe bakoitzaren talde zuzendariak gurasoekin hitz egin du informazioa emateko eta haien iritzia jasotzeko.

9. Arautegian (maiatzaren 19ko 135/1997 Foru Dekretua), Eskola Kontseiluek alde aurretik onestea eskatzen da, baina gero ere informatuta egon beharko dute.

Taldekatzeko hauek antolatzeko erabakia ikastetxearen aniztasunari kasu emateko plan batean kokatu behar da. Ikuspegi hori Proiektu Curricularraren atala da: hezkuntza departamentuan eta

koordinazio pedagogikoko batzordeetan antolatutako irakasleen klaustroari dagokio hori burutzea.

10. Une honetan, 132 ikasle daude aniztasunari kasu emateko neurri horretara bilduta.

11. Hezkuntza premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleak, ikastetxe arruntetan eskolaratuta daudenak:

Publikoak: 688

Pribatuak: 274

BHezkuntza premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleak, berariazko ikastetxetan eskolaratuta daudenak:

Publikoak: 66

Pribatuak: 142

Datu hauek heldu den urteko lehen hiruhilekorian gaurkotu beharko dira.

12. Hezkuntza premia berezi iraunkorrei dagokienez:

– Orientaziorako Unitate Teknikoko orientatzaileek balorazio bat egiten dute zein eskolaratze-eredu hautatu proposatzeko eta aholkua ematen dute egokitzapen kurrilularrak burutzeko.

– Ikastetxeetan, hezkuntza premia berezietan lagunduko duten irakasleak eta zaintzaileak ere jartzen dira, baliabide horiek beharrezkoak badira.

– Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroak berariazko balorazioak, jarraipena eta aholkularitza lana egiten ditu bai eta eskuhartze zuzena ere, beharrezkoa den kasuetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoitik xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko azaroaren 5ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegi Ros

Zerga-erreformak Foru Ogasunari erakarriko dion dirubilketa-kostuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak zerga-erreformak Foru Ogasunari erakarriko dion dirubilketa-kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 21eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak, Nafarroako Gobernuak onetsitako Foru Lege proiektuan bilduriko neurriek, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Tokiko tributuaren arauetan egindako aldaketek, Foru Ogasunari erakarriko dion dirubilketa-kostuari buruz idatziz erantzuteko egin duen galderari erantzunez, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak ondokoa adierazten du:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Pentsio Planak

Pentsio Planei 1997 urtean egindako ekarpenei dagokien gastu fiskala 2.157 milioikoa da, aintzat harturik zerga-oinarriari 7.112 milioiko kenketa egin zaiola. Proposatzen den aldaketa egiteko, 1997an aurkezturiko aitortenei mikrosimulazioaren teknika aplikatu zaie eta ondoko emaitzak lortuko ditugu:

- 1.000.000 pezetako mugarako: kuota likidoan 130 milioiko jaitziera muturreko kasuan, alegia gaur 750.000 pezetako mugara iristen diren subjektu pasibo guztiek 1.000.000 pezetako kenketak egiten badituzte.

Onura fiskalak ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik.

Mikrosimulazioak egin dira 1996ko (1997ko kanpaina) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortenei buruz. Haietan, zerga likidatzen da proposatzen diren arauari jarraituz: finantziazio-gastuak direla eta oinarriaren kenketak deusezteka (18.569 milioi pezeta egiten dute, eta 3.524 milioi pezetako kostu fiskala dute) eta gastu

horiek sartzea kuotako kenketen oinarrian ehuneko 15ean. Eraitzen arabera, kuotan 750 milioi pezetako igoera egonen litzateke.

Ondare gehikuntzak.

Zergapetu daitekeen plusbalia zehazteko orduan aldaketa handia suposatzen duenez eta, bereziki, hiritar inbertsorearen jokaeran eragiten duelako, askoz ere konplexuagoak dira neurri horiek kuotan izanen dituzten ondorioak.

Datu orientagarri gisa, 1997an aitortu diren plusbaliek % 15,14 batezbesteko tipoa tributatu dute, indarra duen sistemari jarraituz. Errazteko asmoz eta erakusgarri bezala, 1997an aurkezturiko autolikidazioen gainean eginiko mikrosimulazio baten bitartez kalkulatu da zein eragin izanen lukeen dirubilketan muga 100eko 20an jartzeak. Eragiketa horren emaitzaren arabera 120 milioi pezeta gutxiago bilduko lirateke. Azpmimarratzekoa da 1996an aitorturiko gehikuntza irregularrak 9.627 pezetakoak izan zirela, eta 1997an aitorturikoek 8.249 milioi pezeta egiten dutela. Hau da, inbertsoreen joera izan da plusbaliak ez gauzatzea erabaki politikoa noiz hartu zain, eta horrek esan nahi du proposatzen den erreforma onesten bada eta tipoa-ren muga % 20an jartzen bada, 1998an dirubilketan gerta litekeen gutxiagotzea ederki konpentsatuko luketen desinbertsioak gertatuko direla. Gainera, zenbaki horiek argi erakusten dute fiskalitateak une honetan aurrezle nafarren inbertsio/desinbertsio erabakietan daukan eragin handia.

Ondarearen gaineko zerga

Kenketa enpresa jarduerari atxikiriko ondasunengatik.

Estatuko Gastu Fiskalen Aurrekontuen estimaziorako metodologiarekin bat, aintzat harturik Nafarroako erreformaren berezitasunak eta zerga honi buruzko fitxategietako informazioa, uste dugu proposatutako salbuespenak dirubilketan ekarriko lukeen kostua gehienez ere 90 milioira helduko litzatekeela.

Sozietateen gaineko Zerga

100eko 30eko zerga-tasa aplikatzea oinarri likidagarriko 15 milioi bitartean.

Proposamen hori 1996ko Zergaren likidazioei aplikatuz gero, kuota osoa 640 milioi pezetatan

jaitsiko litzateke, gutxi gora-behera.

Bestelako aldaketak, dirubilletaren terminoetan baloratu ez direnak

Kostu oso eskasekoak izan daitezke: semea norberaren kargura edukitzeagatik prestazioen salbuespena, ordainketa bakarreko eran emandako lagabeziaren prestazioa, funtzionario publikoen ezintasuna dela-eta ezarritakoa eta enpresako jantokietakoa.

Ez dute esateko moduko aldaketarik ekarriko: enplegua sortzeagatik jarri den kenketa (Zergari buruzko Legean ere badagoelako).

Ezarketa bikoitza dela eta jarri den kenketa, jakina den bezala, hobekuntza tekniko bat baizik ez da.

Ez dago informazio aski araubide iragankorrak plusbalien tratamenduan izan lezakeen eragina ebaluatzeko.

Jarduera batean hasteagatik eta kooperatibentzako JEZan egindako hobariak Toki Ogasunak ukituko dituzte.

97/10/6an onetsitako Zerga Erreformatan dirubilletan izanen dituen eraginen laburpena

| Kontzeptua | Dirubilletan ekarriko duen igoera (jaitsiera) |
|--------------------|---|
| PFEZ | |
| Pentsio planak | (130) |
| Ohiko etxebizitza | 750 |
| Ondare gehikuntzak | (120) |

ONDAREA

| | |
|--|------|
| Kenketa enpresa jarduerari atxikiriko ondasunengatik | (90) |
|--|------|

SOZIETATEAK

| | |
|---|-------|
| 100eko 30eko zega-tasa aplikatzea oinarri likidagarriko 15 milioi bitartean | (640) |
|---|-------|

| | |
|---------|-------|
| Guztira | (230) |
|---------|-------|

José Miguel Nuin Moreno jaunak Nafarroako Gobernuak proposaturiko zerga erreforma inbertsioa eta enpleguaren kudeaketan izanen lukeen eragin pizgarriari buruz planteaturiko hirugarren galderari dagokionez, eragin horri buruzko ebaluazio guztiak partzialak izan behar dute ezinbestez, izan ere fiskalitatea enpresaren antolamenduan eragiten dituzte faktoreetako bat delako eta ezin delako bereizi zein izan daitekeen hark inbertsioak egiteko eta eplegua sortzeko erabakietan izan dezakeen garrantzia. Dena den, zalantzarik gabe agerian jartzen dena da horrelako erabakiak hartzeko ardura duten gizarte-agenteei aintzat hartzen dituztela horrelako akuilu eta pizgarriak.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko azaroaren 12an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José M^a Aracama Yoldi

Beste ospitale batzuetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak beste ospitale batzuetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du kogenerazio-sistemei buruz. Osasun Kontseilariak hauxe darantzu:

1.- Kogenerazio-sistemen ezarpenari dagokionez Nafarroako Ospitalean izandako esperientzia positiboa beste ospitale batzuetara zabaltzeko asmorik ba ote dagoen.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Nafarroako Ospitalean jarri den kogenerazio-sisteman ateratako ondorioekin bat, hauxe ari da

aztertzen: ospitaleen sare publikoko beste zentro batzuetan ere antzeko sistemak jartzeko aukera. Gaur egun, ostera, ez du epe laburrean jartzeko moduko proiekturik garatu, hurrengo lerroaldeetan esango denarengatik

2.- Nafarroako Gobernuak zer ekimen burutzen ari den edo burutzeko asmoa duen, eta zein epe eta zentrotan, Nafarroako Gobernuak berak posibilitat jo duen eta, aipaturiko erantzunaren arabera, aurrezpen garrantzitsuak ekarri dituen esperimentzia kontuan izanik.

Harremanetan ari gara gaur egun Gas Navarreakin, gas naturala jarri gabe duten Osasubidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpeko zentroetan gas naturala energia-iturriztat sartzeko, Nafarroako Gobernuak eta Gas Navarreak izenpetu duten lankidetzak-hitzarmenaren baitan.

Gaur egungo egoera teknologikoak, ordea, trigenerazioaren teknika sartu du. Laburbilduz,

lehen energia-iturri batetik (gas naturala, esate baterako) aldi berean atera daitezkeela argindarra, beroa eta ur beroa eta hotza, uda-garaian. Zentro txikietan ere jar daiteke, eta ez bakarrik ospitale handietan, errentagarritasun egokiarekin.

Aldaketa teknologiko horren ondorioz, Osasubidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak elkarriketak izan ditu alorreko enprekin azterlan egokiak burutzeko asmoz, kogenerazio edo/eta trigenerazio sistemak arrakasta izateko bermearrekin jarri ahal izateko. Ezinezkoa da hori burutzeko epeak zehaztea, ateratako txostenen arabera jarduketan plana egin arte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko azaroaren 11n

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

“Lurzoru, etxebizitza eta eraikinen salmenta” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzoru, etxebizitza eta eraikinen salmenta” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak jaunak, galdera egin du 35800-0 zenbakiko aurrekontu-kontusailari buruz, “Lurzoru, etxebizitza eta eraikinen salmenta” izenekoa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu, hori dela-eta:

1.- 1997ko ekitaldian sarturiko kopuru osoaren banakatzea, jarduketa bakoitzerako bere helburua, zenbatekoa, herria, ukituriko enpresa edo entitateak eta abar.

Kobratzeko onetsi diren eskubideek 1.488.250.099 pezeta jo dute, guztira.

Dirusarreraren zatirik handiena hurrengoari dagokio: Iruñeko lur publikoa esleitzeko berrikitan egin den lehiaketako lurzatien salmentari. 1.487.570.790 pta. jotzen du horrek, eta dagokion BEZa gehitu behar zaio horri.

Gaur egunera arte, 461.146.945 pta. sartu dira lehiaketatik: 223.135.619 pta. salneurriaren %15ari dagozkio, eta 238.011.326 BEZi.

Hitzartutakoaren arabera, 1997ko abenduaren 15a baino lehen ordaindu behar da salneurriaren gainerako %85a, hau da, 1.264.435.172 pta.

Hona, bada, kopuruaren banakaketa:

| Taldea | Esleipenduna | Lurzoruaren prezioa | BEZ | Prezioaren %15 | Uztaileko ordainketa (BEZ+prez.%15) | Abenduko ordainketa (Prez. %85) | Guztira |
|---------|----------------|---------------------|-------------|----------------|-------------------------------------|---------------------------------|---------------|
| 1 | Cogremasa | 117.483.024 | 18.797.284 | 17.622.454 | 36.419.737 | 99.860.570 | 136.280.308 |
| 2 | Prodinver | 124.754.442 | 19.960.711 | 18.713.166 | 38.673.877 | 106.041.275 | 144.715.152 |
| 3 | Blanca Navar. | 107.627.356 | 17.220.377 | 16.144.103 | 33.364.480 | 91.483.253 | 124.847.733 |
| 4 | M.R.A. | 171.750.693 | 27.480.111 | 25.762.604 | 53.242.715 | 145.988.089 | 199.230.804 |
| 5 | Plazaola | 168.987.067 | 27.037.931 | 25.348.060 | 52.385.991 | 143.639.007 | 196.024.998 |
| 6 | Avanco | 146.499.683 | 23.439.949 | 21.974.952 | 45.414.902 | 124.524.731 | 169.939.632 |
| 7 | Procecsa | 172.288.700 | 27.566.192 | 25.843.305 | 53.409.497 | 146.445.395 | 199.854.892 |
| 8 | Parque Soto | 146.078.616 | 23.372.579 | 21.911.792 | 45.284.371 | 124.166.824 | 169.451.195 |
| 9 | Gestión Asist. | 81.205.082 | 12.992.813 | 12.180.762 | 25.173.575 | 69.024.319 | 94.197.895 |
| 10 | Sanzol | 64.372.789 | 10.299.646 | 9.655.918 | 19.955.565 | 54.716.871 | 74.672.435 |
| 11 | Lizarraga | 112.600.971 | 18.016.155 | 16.890.146 | 34.906.301 | 95.710.825 | 130.617.127 |
| 12 | Larcovi | 73.922.366 | 11.827.579 | 11.088.355 | 22.915.934 | 62.834.011 | 85.749.945 |
| Guztira | | 1.487.570.790 | 238.011.326 | 223.135.619 | 461.146.945 | 1.264.435.172 | 1.725.582.116 |

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Etxebizitzetarako jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alojera)” aurrekontu kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Etxebizitzetarako jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alojera)” aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du 99001-0 zenbakiko aurrekontu-kontusailari buruz, “Etxebizitzetarako jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alojera)” izenekoa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu, hori dela-eta:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sarturiko data.

Hona zerrenda hori:

– Etxebizitzaren Finantzazioari buruzko abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea, 1993ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zena.

– 100/1997 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, etxebizitza-finantzazioaren gaineko neurriei buruzkoa. 1997ko apirilaren 29an sartu zen indarrean eta hori baino lehen indarrean izan ziren 155/1993, 234/1996 eta 684/1986 foru dekretuak derogatu zituen.

2.- Foru Agindu edo Ebazpenen bidez zein aportazio edo aurrekontuz kanpoko finantzaketa bidez gorantz edo beherantz egindako aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Kontusail horretan ez da aldaketarik izan 1997ko ekitaldian zehar.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzerako izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

Kontusailak 6.294 milioi ditu eta horietatik 5.529.236.018 pta. ordaindu da gaur egunera arte. Beraz, 1.394.736.982 pta. dago eskura.

4.- Kontusail hau burutzeko eginiko jarduketan zerrenda ahalik eta xehekatuena, horiek zer mota-takoak diren eta zer zenbateko duten adieraziz.

Kontusail hau zer jarduketatan erabili den, gaur egunera arte baimendu eta erabilitako kredituarekin, eta onetsitako betebeharreri dagozkien kopuruarekin, hurrengoaren arabera da:

| Izena | Kreditu baimendua | % B/F | Kreditu erabilia | % E/B | Onetsitako betebeharra |
|------------------|-------------------|-------|------------------|-------|------------------------|
| Erosketa | 2002191900 | 29 | 2002191900 | 100 | 2002191900 |
| Errehabilitazioa | 709208737 | 10 | 709208737 | 100 | 709208737 |
| Alokairua | 562715293 | 8 | 562715293 | 100 | 562715293 |

| | | | | | |
|--------------------|------------|----|------------|-----|------------|
| Korrituak | 2253424090 | 33 | 2253424090 | 100 | 2253424090 |
| Eraikunt. eraistea | 1695998 | 0 | 1695998 | 100 | 805753 |

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Kontabilitatearen arabera ez da gasturik konprometitu, baina egia da aurreko urteetako jarduketetatik 1998 eta 1999rako gastua erakartzen dela, eta horrek jotzen duenaren zenbatespena Nafarroako Parlamentuak joan den ekainean onetsi zuen 1997-2000 Etxebizitza Planean agertzen dela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Alogera-etxebizitzak sustatzeko jarduketak Tuterako hirigune historikoan” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Alogera-etxebizitzak sustatzeko jarduketak Tuterako hirigune historikoan” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du 108891-0 zenbakiko aurrekontu-kontusailari buruz, “Alogera-etxebizitzak sustatzeko jarduketak Tuterako hirigune historikoan” izenekoak. Ingarugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu, hori dela-eta:

1.- Foru Agindu edo Ebazpenen bidez zein aportazio edo aurrekontuz kanpoko finantzaketa bidez gorantz edo beherantz egindako aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

2.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

3.- Kontusail hau burutzeko eginiko jarduketaren zerrrenda ahalik eta xehekatuena, horiek zer motatakoak eta zer kopurukoak diren adieraziz.

4.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Kontuan izan behar da horretarako aurreikusitako jardueren nagusia San Franziskoko komentua zaharra eraberritzea dela, alokairuko etxebizitzetarako. Interesgarritzat jo dugu orube hori Europar-ek antolatu duen Nazioarteko Arkitektura Lehiaketara aurkeztea, berrikitan sartu baita Nafarroa Europar horretan. Lurzati hori horretan sartzeko kudeaketak ez dira joan den irailera arte bukatu; burutzean izango den atzerapen hori ondo baino hobeto konpentsatuko da, gure ustez, Europako arkitekto gazteek aurkeztuko dizkiguten proposamen urbanistiko eta arkitektonikoen kopuru eta kalitatearekin, lehiaketa hori arkitekto gazteentzako egina baita.

Hori dela-eta, kontusail hori ez da burutu.

Hala ere, eraikinak eta orubeak erosteko izapideak egiten ari gara, eta uste dugu ongi aterako direla eta aipatu kontusaila agortuko dugula

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Ingarugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoentzat dirulaguntzak” aurrekontu kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoentzat dirulaguntzak” aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du 10830-9 zenbakiko aurrekontu-kontusailari buruz, “Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoentzat dirulaguntzak” izenekoa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu, hori dela-eta:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sarturiko data.

Hona zerrenda hori:

- 1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legea.

- 289/1988 Foru Dekretua, abenduaren 14koa, errehabilitazio bulegoendako laguntzei buruzkoa.

2.- Foru Aginduen edo Ebazpenen bidez zein aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez gorantz edo beherantz egindako aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Kontusail honetan ez da aldaketarik izan.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

Ez dago 1996ko kontabilitate-konpromisorik.

Kontusaileko 230 milioi horietarik, 76.227.612 pta. erabili da, eta 40.329.183 pta. ordaindu dira, benetan. Kontuan izan behar da kontusail honek 4. kodea duela eta udalek egiten dituzten ohiko gastuetarako eta langileen gastuetarako dirulaguntzetan erabili behar dela, eta udalek aurre ez dutela desiragarri litzatekeen jarduketakopurua sustatu

4.- Kontusail hau burutzeko eginiko jarduketan zerrenda ahalik eta xehekatuena, horiek zer motatakoak eta zer kopurukoak diren adieraziz.

Burutu diren jarduketak errehabilitazio-bulegoa banakatu dira eta ondoren zehazten dira baimendutako kredituari, erabilitako kredituari eta betebeharraren onespenera dagozkion kopuruak

| Izena | Kreditu baimendua | % B/F | Kreditu erabilia | % E/B | Onetsitako betebeharra |
|-------------------------------|-------------------|-------|------------------|-------|------------------------|
| III eskualdea-Tafalla | 12564883 | 5 | 12564883 | 100 | 9423234 |
| I. eskualdea Iruñea | 21013731 | 9 | 21013731 | 100 | 10506866 |
| II. eskualdea Iruñea | 11500000 | 5 | 11500000 | 100 | 4905010 |
| IV. eskualdea Tuter | 11999533 | 5 | 11999533 | 100 | 5999766 |
| VI. eskualdea Iparmendebaldea | 6300664 | 3 | 6300664 | 100 | 2630998 |
| V. eskualdea Lizarra | 12564883 | 5 | 12564883 | 100 | 6579391 |
| 96-III. eskualdea Tafalla | 283918 | 0 | 283918 | 100 | 283918 |

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Ez da gastu-konpromisorik hartu 1998 eta 1999 urteetarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Naturguneak mantentzea eta habitat-ak hobetzea” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Naturguneak mantentzea eta habitat-ak hobetzea” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du 11410-4 zenbakiko aurrekontu-kontusailari buruz, “Naturguneak mantentzea eta habitat-ak hobetzea” izenekoa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantz, hori dela-eta:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

Naturguneak mantendu eta habitat-ak hobetzeko jarduketaren justifikazio legala Nafarroako naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legean datza, Foru Lege horretako atariko kapitulu 2. artikuluko a) atalean eta V. kapitulu 44. artikuluko c) atalean, hain zuzen.

2.- Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar Kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Aipatu kontusaillean ez da goranzko aldaketarik izan, 1997ko aurrekontu-ekitaldian.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

Aipatu kontusailaren hasierako kreditua berrogeita hamar milioi izan zen, eta %78,7 baimendu da gastatzeko, kreditua 9,2 milioitan murriztu ondoren, aurrekontu-doiketak zirela-eta. Gainera-

ko kreditua 1997ko ekitaldian zehar erabiliko da, antzeko konpromisoei aurre egiteko.

4.- Buruturiko jarduketaren zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen Enpresa, Entitate edo Erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

Hona gaur egunera arte burutzen ari diren jarduketak:

1. a) Productos Recicladados y Abonos Orgánicos de Montejurra, S.A. (PRAOMSA)rekiko hitzarmena, maiatzaren 6ko 1437/1997 Ebazpenaren bidez onetsia.

b) Urbasa eta Andia mendietako, Lizarragako tuneleko eta Urederraren sorburuko (NE) hondakinak bildu, erabili eta eramatea.

c) Apirilaren 1etik abenduaren 31ra

d) Nafarroako Gobernuak jarri duena: 2.407.500 pezeta.

2. a) Altsasuko Kataliturri, S.L. enpresari egin zaion esleipena, ekainaren 6ko 1739/1997 Ebazpenaren bitartez.

b) Urbasa eta Andia mendietako zaintza, turismo eta aisialdiko erabileraren antolamendua eta garbiketa.

c) Ekainaren 20tik irailaren 15era arte.

d) Nafarroako Gobernuak jarri duena: 8.073.607 pezeta.

3. a) Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. enpresari enkargu bat eman zaio, uztailaren 1eko 2054/1997 Ebazpenaren bitartez, mantenimendu lanak egiteko, ondoren aipatzen diren tokietan eta hurrengo zehaztutakoenekin:

b)

b1 Arradako aintzira:
400 m.l. zagor jartzea
36 m.l. baranda konpontzea

b2 Artederreta-Untzue eskualdea:
3.300 landare ureztatzea
1.300 txorko konpontzea
Ureztatze sistemaren eta sistema elektrikoaren mantenimendua

Futbol zelaiaren mantenimendua eta aldagelak garbitzea

100 landare aldatzea

b3 Las Cañasko natur erreserba

1.500 landare 3 aldiz ureztatzea

449 txorko konpontzea

Sistema elektrikoaren, hobi septikoaren eta geretaren mantenimendua

Zerbitzuak garbitu, urandela bete eta hondakinak kentzea

b4 Bi Erreinuko aintzira

472 landare 5 aldiz ureztatzea

472 txorko konpontzea

500 zuhaitz aldatzea

b5 Ramaletoko ibarbasoa

30 landare 5 aldiz ureztatzea

50 landare aldatzea

b6 Bertizko Parke Naturala:

2.100 loredun landara erosi

Pisten, bideen eta areken mantenimendua, 200 egunsarirekin

Inguruko itxitura konpontzea, 15 egunsarirekin

Zabuak konpontzea, 12 egunsarirekin

550 m.l. zagor jartzea

b7 Sotogil eta Ramal Hondo ibarbasoak:

1.286 landare 5 aldiz ureztatzea

1.500 metro koadrotan belar-sastrakak garbitzea.

b8 El Pulguerko idoia:

300 landare 5 aldiz ureztatzea

600 m.l. zagor jartzea

100 m.l. harrizko baliza jartzea

b9 Pitillasko aintzira:

300 landare 5 aldiz ureztatzea

100 txorko konpontzea

Itxitura konpontzea, 15 egunsarirekin.

b10 Campo Allendeko ibarbasoa:

Isurketak eta hondakinak garbitzea, 8 egunsarirekin

b11 Irati ibaia:

3.500 landare 3 aldiz ureztatzea

b12 Lizarragako mendatea:

Egur tratatuzko itxitura paratzea, edukiontzia jartzeko.

b13 Bakedanoko Sologorri ingurua:

4 zerbitzu unitateren garraio eta mantenimendua.

Terrazetan ereitea.

500 m.l. zagor jartzea

Berri emateko lau kartel erostea.

c) Uztailaren 1etik abenduaren 31 arte.

d) Nafarroako Gobernuak jarri duena: 19.198.954 pezeta.

4. Gastu txikiak: lanabesak, garbitzeko gaiak, eta abar.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Gaur egunera arte ez dago aipatu kontusailaren kargurako inongo konpromisorik, 1998-1999 urteetarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

C motako meningitisari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak C motako meningitisari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galde-

ra hori 1997ko azaroaren 10eko 73 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du C motako meningitisak jotako pertsona gehiago dagoela eta, hainbat alderi buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Galderei erantzuten hasi baino lehen, garrantziko zehaztapen batzuk egitea komeni da:

Galderaren lehen lerroaldearen edukiari buruz, alegia "C meningitisa aldian-aldian herritarrei eragiten dien gaitz larria da eta ondorio eta ondore oso larriak izan ditzake"; egokiago litzateke hauxe esatea C meningitisa garrantziko gaitza da, ez da oso maiz gertatzen, gure inguruan endemikoa, eta ez aldian-aldikoa, gehien-gehienetan, antibiotikoterapia egokiarekin, oso-osorik sendatzen dena, ondorioz gabe.

Galderaren bigarren lerroaldeaz, berriz: "Gaitzak jotako lagunen kopuruak gora egin du Nafarroan azken hilabete honetan eta kezka sortu da herritarrengan, logikoa da"; ñabardura bat: urrian C meningitis bi kasu agertu dira, otsailetik ordura arte gaitz hori Nafarroan agertu ez delarik.

Galderan esaten denari jarraituz gero, badirudi hilero-hilero gertatu direla kasuak eta urrian nabarmen hasi direla. Hori ez da egokia ezta egia ere, benetako egoeraz jabetu nahi badugu.

1997an zehar, gaur egunera arte, Nafarroan gertatu diren kasuak. Zehatz bitez hilabetea eta eritasuna jasan duenak nola bukatu duen eta zer adina duen, eta baita bizi den herria ere.

Gaur egunera arte, lau dira 1997an zehar Nafarroan gertatu diren C meningitis kasu baietsiak:

– Urtarrilean: gaiso bat, hiru hilabetekoa, Urrozen bizi zen eta hil egin zen.

– Otsailean: gaiso bat, 39 urtekoa, Iruñean bizi eta guztiz sendatzera doa.

– Urrian: Bi gaiso, 3 eta 8 urtekoak, Iruñean bizi eta guztiz sendatzera doaz.

1996ko urtearekiko konparaketa, kasu-kopurua kontuan hartuta.

– 7 kasu C meningitis baietsi ziren 1996an. Ezin da konparaketarik egin, 1997. urtea bukatu gabe dagoelako.

UPNren exekutiboak C meningitisaren aurka aurreikusitako dituenak.

* Bada protokolo bat bakterio-meningitisetan jarduteko eta Osasun Departamentuak horren inguruan duen osasun-politika gidatzen du.

* Aipatu protokoloa nazioarteko zientzi komunitatearen irizpideekin bat dator, eta Nafarroako hiru ospitale publikoetako pediatri zerbitzuekin, Bideko Ama Birjina Ospitaleko aurrea hartzeko medikuntza atalarekin eta Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuaren epidemiologi zaintza eta kontrolerako atalarekin adostua dago. Bere baitan dituen neurrien artean dugu C meningitisaren aurkako txertoa, epidemia-agerraldiak kontrolatzeko, txertaketa masiboaren aurkako bada ere.

* Jarrera hori berretsi egin du nork eta Txertatzearen Batzorde Aholkuemaileak, 1997ko otsailaren 25eko, ekainaren 27ko eta irailaren 11ko bilkuretan.

Kasuen kopuruaren balizko igoeraren aurrean:

– UPNren Gobernuaren ustetan, zenbat kasu beharko lirateke neurriak hartzeko?

– Zer neurri hartu beharko lirateke: txertoak..., eta abar.

Badirudi galderaren helburua dela jakitea Nafarroa noiz sartuko ote den ia-ia autonomia erkidego guztietan abiarazi den txertaketa masiboaren kanpaina horretan.

Kasuen kopuruaren gehikuntzaren zenbatekoa ezin da faktore bakartzat hartu erabaki hori hartzeko garaian.

Lehenengo eta behin, populazioa hartu behar da kontuan eta baita denbora-unitateren bat ere. Osasunerako Mundu Erakundeak hurrengo tasak ematen ditu, adibidetzat: 100.000 biztanleko 10 hiru hilabetetan. Nafarroan, gaur egun, 100.000ko 0,77 dugu, hamar hilabetetan.

Zenbakizko kontsidero hori asko bada ere, ez da dena.

Gainera, kontuan izan beharko da gehikuntza hori agrupazio geografikoren batean gertatzen den ala bestelako agrupazio jakinen batean.

Kontuan izan beharko dira, halaber, kasuek erakusten duten larritasuna eta beste batzuk.

Horiek guztiak aintzat hartuta, eta ez bakarrik kasuen kopurua, erabaki daiteke txertatze masiboa egoki den ala ez.

Kasu gehiago (?) gertatu direla eta txertaketa aurreikusitako bada, arriskuan dauden biztanleak txertatzeko behar den denboraren, arrisku-adinen eta kostuaren aurreikuspena.

Beste autonomia batzuetan egindako txertaketaren antzekoa egitea erabakiko balitz, hilabete igaroko litzateke erabakia hartu eta txertaketa bukatu arte, eta 70 milioi pezeta joko luke, gutxi gorabehera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babespean.

Iruñean, 1997ko azaroaren 10ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

“Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko planak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko planak” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du “Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko planak” izeneko aurrekontu-kontusailari buruz. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantz, hori dela-eta:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

Hona zerrenda:

– Naturguneak eta Basa Fauna eta Flora kontserbatzeari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legea.

– Basa Fauna eta haren habitat-ak zaindu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko Foru Legea.

– 563/1995 Foru Dekretua, azaroaren 27koa, Basa-faunako ornodunen zenbait espezie eta subespezie Nafarroako Espezie Mehatxatuen Katalogoan sartzen dituena.

2.-Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finan-

tzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Kontusail honetan ez da aldaketarik izan, aurrekontua onetsi ondoren.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

Aipatu kontusaila berria da 1997ko aurrekontuan eta ez du aurreko ekitaldiko konpromisorik.

4.- Buruturiko jarduketaren zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen enpresa, entitate edo erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

Kontusail honen kargura kontratatu diren azterlanen guztizko aurrekontuak 16.725.000 pezeta jotzen du. Azterlanok, bukatuta egongo dira 1997ko abenduaren 31rako. Ondoren aipatzen dira:

1. azterlana - Ganga azpibeltzaren (*Pterocles orientalis*), Ricotí hegatzabalaren (*Chersophilus duponti*) eta txoriandre pispoletaren (*Calandrella rufescens*) habitaten kontserbaziorako planak egitea.

2. azterlana - Murgil handiaren (*Podiceps cristatus*), txilinporta lepabeltzaren (*Podiceps nigricollis*), zankaluzearren (*Himantopus himantopus*) eta bernagorri arruntaren (*Tringa totanus*) habitaten kontserbaziorako planak egitea; eta txilinporta txikiaren (*Tachybaptus ruficollis*) eta kuliska txikiaren (*Actitis hypoleucos*) kontserbaziorako planak.

| | | |
|---|--|-----------|
| 3. azterlana: Amiltxori txikiaren (<i>Ixobrychus minutus</i>), amiltxori arruntaren (<i>Nycticorax nycticorax</i>), lertxuntxo txikiaren (<i>Egretta garcetta</i>) eta lertxun gorriaren (<i>Ardea purpurea</i>) habitaten kontserbazio planak egitea. | Sta, Cruz de Ardoi, 49 - 11 ezk. 31180-Zizur Nagusia | 1.500.000 |
| 4. azterlana: Tengmalm hontza (<i>Aegolius funereus</i>). | 4 zk. Astrain Massa, C. IFZ: 29.151.734-Q Mº de Urdax 36 zk.- 2. A 31011 - Iruñea | 800.000 |
| 5. azterlana: Schreibers saguzarraren (<i>Miniop-terus schreibersii</i>) habitataren kontserbazio plana egitea; ferra saguzar handiaren (<i>Rinolophus ferru-nequinum</i>), ferra saguzar txikiaren (<i>Rinolophus hiposiderus</i>) eta Geoffroy saguzarraren (<i>Myotis emarginatus</i>) kontserbazio planak egitea. | 5 zk. Alcalde Díaz de Cerio, J.T. NAN: 18.201.746-Y San Juan Bosco K. 1 zk.- 1. ezk. 31007 - Iruñea | 1.380.000 |
| 6. azterlana - Uhandre alpetarraren (<i>Triturus alpestris</i>), baso-igel jauzkariaren (<i>Rana dalmatina</i>) eta dortoka istilzalearen (<i>Emys orbicularis</i>) habitaten kontserbazio planak egitea. | 6 zk. Gosa Oteiza, A. NAN: 1.390.385 Zapatería K. 33 zk.- 2. 31001 - Iruñea | 1.000.000 |
| 7. azterlana - Miru gorriaren (<i>Milvus milvus</i>), sai zuriaren (Neophron percnopterus), arrano beltzaren (<i>Aquila chrysaetos</i>) eta belatz handiaren (<i>Falco peregrinus</i>) kontserbazio planak. | 7 zk. Grupo de Estudios Biológicos Ugarra IFK: G-31/11814/4 Calderería K. 16 zk.- 3. 31001 - Iruñea | 2.500.000 |
| 8. azterlana - Zingira mirotzaren (<i>Circus aeruginosus</i>) kontserbazio plana egitea. | 8 zk. Fernández León, C. IFZ: 15.827.689-D Castillar K. 20 zk. 31392 - Pitillas | 800.000 |
| 9. azterlana - Mirotz zuriaren (<i>Circus cyaneus</i>) eta mirotz urdinaren (<i>Circus pygargus</i>) kontserbazio planak egitea. | 9 zk. Munilla García, A. Elósegui Aldasoro J. IFZ: 15.805.640-V Malón de Chaide K. 15 zk. 31008 - Iruñea | 1.000.000 |
| 10. azterlana - Okil beltzaren (<i>Dryocopus martius</i>) kontserbazio plana egitea. | 10 zk. Fernández León, C. IFZ: 15.827.689-D Castillar K. 20 zk. 31392 - Pitillas | 1.000.000 |
| 11. azterlana - Uhalde-enararen (<i>Riparia riparia</i>) kontserbazio plana egitea. | 11 zk. Elósegui Aldasoro, J. IFZ: 15.207.242-X Abejeras K. 8 zk. 31007 - Iruñea | 800.000 |
| 12. azterlana - Ur-ipurtatsaren (<i>Mustela lutreola</i>) kontserbazio plana egitea. | 12 zk. Irizar Uncilla, I NAN: 72.572.895-Y Mugertza K. 3 zk.- 2. 20570 - Bergara (Gipuzkoa) | 1.000.000 |
| 13. azterlana - Sarrioaren (<i>Rupicapra pyrenai-ca</i>) kontserbazio plana egitea. | 13 zk. Ega, S.C. IFZ: G-22.164.057 Oroel etorb. 8 A - 3. B 22700 - Jaca (Huesca) | 950.000 |
| Hona azterlanen esleipendunak: | | |
| | Esleipen aurrekontua | |
| 1 zk. Astrain Massa, C. J. Elósegui Aldasoro IFZ: 29.151.734-Q Mº de Urdax 36 zk.- 2. A 31011 - Iruñea | 2.000.000 | |
| 2 zk. Arzoz Labiano, M.J. NAN: 15.804.092-X Sta, Cruz de Ardoi, 49 - 11 ezk. 31180-Zizur Nagusia | 1.995.000 | |
| 3 zk. Arzoz Labiano, M.J. NAN: 15.804.092-X | | |

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Ez da gastu konpromisorik hartu 1998 eta 1999 ekitaldietarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-

lamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du “Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak (**)” izeneko aurrekontu-kontusailari buruz, 11550-0 lerroa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu, hori dela-eta:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

Hona zerrenda:

Naturguneak hobetzeko xedea duten jarduketan aipatu kontusaila erabiltzeko arauak Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legean dute oinarri.

Aipatu kontusaila ibaiak leheneratzeari dagokionean erabiltzeaz, berriz, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legea hartu behar oinarritzat, 6tik 9ra bitarteko artikulua, hain zuzen.

Gobernuak aipatu jarduketarako duen aginpidea, ostera, LORAFNAko 44-2 artikuluan oinarritzen da, artikulua horretan Nafarroari ezagutu baitzaio obra hidraulikoen gaineko eskumen osoa, non eta Estatuaren interes orokorreko ez badira eta gainerako autonomia erkidegoei eragiten ez badie. Jarduera horien arauketa zehatza egiteko, Departamentu honetako maiatzaren 8ko 543/1997 Foru Agindua eman zen, 65 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

2.-Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak..) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Aipatu kontusailean zegoen hasierako laurogei milioko kredituari beste hogeita bost milioi gehitu zaizkio kreditu-transferentziaren bitartez, Ibaier-tzak eta ibai ekosistemak leheneratzea izeneko kontusailetik, 11520-8 lerrotik, hain zuzen.

Aurrekontuz kanpoko finantzazioari dagokionez, berriz, gogoan izan behar da Administrazioak 5b helburuko eskualdetan egin dituen ingurugiro-hobekuntzarako inbertsioak Europako Batasunak onetsiak izan direla eta %50eko dirulaguntza jasoko dutela FEOGA-O egitura-fondoaren bidez. Aipatu laguntzek ez dute kreditu gehiagorik sortzen, dagokion dirusarrera-kontusailera zuzenean pasatzen baizik.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

Ehun eta bost milioiko kreditua metatu zen aipatu kontusailean eta %96,45 onetsi da gasta-

tzeko. Gainerako kreditua ere baimendu egingo da, aurretik eskatutako jarduketei arreta egiteko.

Ez dago inolako konpromisorik, 1996ko urtean hartutakorik, aipatu kontusailaren kargura.

4.- Buruturiko jarduketaren zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen enpresa, entitate edo erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

Hona egiten ari diren jarduketaren zerrenda, gaur egunera arte:

1. a) Tafalla, Erriberri, Beire eta Pitillasko udalekiko hitzarmena, abuztuaren 11ko 949/1997 Foru Aginduz onetsia.

b) Jarduketa: Cidacos ibaiaren ibilguaren eta ibaiertzen garbiketa orokorra, eta baita ere urak gainezka egitea eta ibaiaren inguruan diren hirigune eta finketan uholdeak eragiten dituzten gune jakinak egokitzea ere.

c) Egiteko garaia: 1997ko iraila-urriak.

2. a) Larriongo Kontzejuarekiko hitzarmena, urriaren 2ko 1160/1997 Foru Aginduz onetsia.

b) Jarduketa: Urederra ibaiaren ibilguan defentsa eta egokitze lanak burutzea, hiriguneko uholdeak ekiditeko.

c) Egiteko garaia: 1997ko urria-azaroak.

d) Nafarroako Gobernuak jarri duena:

Larrion..... 6.936.360

3. a) Urrotz eta Beintza-Labaien udalekiko hitzarmena, apirilaren 7ko 375/1997 Foru Aginduz onetsia.

b) Jarduketa: Leurtzako urtegi-tako (ANE) behaketa eta garbiketa.

c) Egiteko garaia: Aste Santua eta ekainaren 15etik irailaren 15era.

d) Nafarroako Gobernuak jarritakoa: 804.312 pezeta.

4. a) Lizasoko Kontzejuarekiko hitzarmena, apirilaren 29ko 500/1997 Foru Aginduz onetsia.

b) Jarduketa: Orgiko asiarako natur eremuaren erabilera publikoa egokitu eta antolatzea.

c) Egiteko garaia: 1997ko urtarriletik abendura.

d)) Nafarroako Gobernuak jarritakoa: 15.600.000 pezeta.

5 a) Aralarko Batasunarekiko hitzarmena, apirilaren 28ko 499/1997 Foru Aginduz onetsia.

b) Jarduketa: Aralarko mendien erabilera publikoa egokitu eta antolatzea.

c) Egiteko garaia: 1997ko maiatzetik abendura.

d) Nafarroako Gobernuak jarritakoa: 13.968.776 pezeta.

6. a) Hitzarmena Nafarroako Pirinioko Partzuergoarekin, Cederna-Garalurekin, Irunberriko Udalarekin, Romanzado ibarrarekin eta Urraul Beitiko ibarrarekin. Apirilaren 30eko 530/1997 Foru Aginduz onetsia.

b) Jarduketa: Irunberriko, Arbaiungo (EN) eta Ugarrongo (NL) zintzurretako turismo eta aisialdi erabilera egokitu eta antolatzea.

c) Egiteko garaia: 1997ko uda.

d) Nafarroako Gobernuak jarritakoa: 5.490.000 pezeta.

7. a) Zaraitzu ibarreko Batzarrarekiko Hitzarmena, ekainaren 30eko 2017/1997 Ebazpena

b) Jarduketa: Irati mendiaren turismo eta aisialdi erabileraren behaketa eta antolamendua.

c) Egiteko garaia: 1997ko udako kanpaina.

d) Nafarroako Gobernuak jarritakoa: 3.691.232 pezeta.

8. a) Nabaskozeko Kontzejuarekiko hitzarmena, uztailaren 1eko 2050/1997 Ebazpenaren bitartez onetsia.

b) Jarduketa: Benasako zintzurteko (EN) turismo eta aisialdi erabileraren behaketa eta antolamendua.

c) Egiteko garaia: 1997ko udako kanpaina.

d) Nafarroako Gobernuak jarritakoa: 322.456 pezeta.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Gaur egunera arte ez dago konpromisorik 1998 eta 1999 urteetarako, aipatu kontusailaren kargura.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Belate eta Almandozko tunelak bukatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Belate eta Almandozko tunelak bukatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak galdera egin du Belate eta Almandozko tunelei buruz. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak hauxe adierazten du horri buruz:

1.- Belateko tunela bukatzeko eguna.

1997ko azaroaren 13a.

2.- Almandozko tunela bukatzeko eguna.

1997ko azaroaren 13a.

3.- Bien atzerapenaren justifikazioa.

Instalazioak 1997ko azaroaren 13an bukatuko dira eta garbiketa, saioak eta erremateak egin beharko dira gero

4.- Belateko eta Almandozko tunelak erabili ahal izango diren egunaren aurreikuspena.

1997ko azaroaren 28a

5.- Errepide osoa, Oronoz-Mugairiraino, erabili ahal izango den egunaren aurreikuspena.

1997ko azaroaren 28a.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 12an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Belate eta Almandozko tunelak irekitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Belate eta Almandozko tunelak irekitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko azaroaren 10eko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Belate eta Almandozko tunelei buruz. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak hauxe adierazten du horri buruz:

1. Noiz aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak lan horiek behin-behineko hartzea eta Belate eta Almandozko tunelak ibilgailuek erabiltzeko zabaltea.

Azaro honetako azken asterako aurreikusi da tunelak zerbitzuan jartzea.

2. Zein den instalazio eta zerbitzu lanak bukatzeko data ofiziala; aipatu instalazio lanen esleipena.

1996ko abenduaren 12ko 3758/96 Foru Aginduz gertatu zen tunelen instalazioen obrak esleitzea.

Lanak hasteko agindua 1997ko otsailaren 12n eman zen eta burutzeko epeak, 9 (bederatzi) hilabete jotzen zuen, guztira. Azaroaren 12a da, beraz, amaitzeko eguna, kontratuaren arabera.

3. Zerk eragin duen lanak atzeratzea eta tunelak funtzionamenduan jartzea.

Aurreko puntuaren erantzunetik ateratzen da ez dela atzerapenik gertatu, hasieran aurreikusitakoa kontuan hartuz gero.

4. Aldakuntza ekonomikorik ote dagoen edo aurreikusi ote den esleitutakoaren eta amaierako benetako kostuaren artean.

Esleipenaren kopuruaren eta likidazioaren kopuruaren arteko aldea gertatuko da, hurrengo arrazoiengatik:

a) Uztailaren 18ko 3025/97 Foru Aginduaren bidez onetsi zen aldaketa, 38.975.774 pezeta jotzen zuena, telefonia mugikorrek kablea jartzeko, tunelen barnean jarraipena emateko bai SOSen bai Goardia Zibilaren komunikazio-sistemi.

b) Azaroaren 22ko 4502/97 Foru Aginduz onetsi da 39.964.322 pezeta jotzen duen aldaketa. Instalazioen ustiaketa eta mantenimenduaren kontratua aurreikusten du, esleipendun enpresa berarekin, 4 hilabeteko epean (hilabete bat 1997an eta gainerako hirurak 1998an), behin-betiko kontratua egin arte.

Obrak esleitzeko aurrekontua 923.115.712 pezeta izan zen. Likidazioaren guztizko desbideraketa, hortaz, %8,6 izango da, aipatu aurrekontuarekin konparatuta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 12an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

“Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” aurrekontu kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du 93002-5 zenbakiko “Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” izeneko aurrekontu-kontusailari buruz. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu, hori dela-eta:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sarturiko data.

Hona zerrenda:

– Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea.

– Ezinbesteko Desjabetzeari buruzko Legea, 1954ko abenduaren 16koa.

– Ezinbesteko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onesten duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretua.

– Hirigintza Kudeaketari buruzko Erregelamendua onesten duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua

2.- Foru Aginduen edo Ebazpenen bidez zein Aportazioen edo aurrekontuz kanpoko Finantza-keraren bidez gorantz edo beherantz egindako aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Ez da aldaketarik izan kontusail honetan.

3.- 1997an erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

Azaroaren 3ra arte, 284.235.151 pta. gastatu dira, baina egun horretan bertan, 620.000.000 pezetako gastua onetsi zuen Nafarroako Gobernuak. Beraz, 295.764.840 pta. geratzen dira, erabiltzeko moduan.

Une honetan, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak hainbat kudeaketatan dihardu lurzorua erosteko, eta espero dugu urtea bukatu baino lehen burutzea eta kontusaila bere osoan gastatzea.

4.- Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzeko buruturiko jarduketan zerrenda ahalik eta xehekatuena, jarduketa bakoitzari buruz zenbatekoa, azalera erabilgarriak, etxebizitza-kopurua, ukituriko herriak eta abar zehaztuz.

Hona zerrenda:

| | |
|--|-------------------------|
| – Mendillorriko eraisketa (obra) | 9.714.791 |
| – Mendillorriko eraisketa (ordainsariak) | 898.987 |
| – Mendebaldea-Iruñea (urbanizazio gastuak) | 53.676.613 |
| – Noain B-3 (urbanizazio gastuak) | 8.224.035 |
| – Alemanes-Iruñea (urbanizazio gastuak) | 4.880.938 |
| – Mendebaldea-Iruñea (urbanizazio gastuak) | 169.318.093 |
| – Tuteru U.E. 17A (urbanizazio gastuak) | 21.196.333 |
| – Tuteru U.E. 16 (urbanizazio gastuak) | 3.069.302 |
| – Arrotxapea pol, 4-B-2 (urbanizazio gastuak) | 13.256.059 |
| – Mendillorriko IV. faseko erosketak-Astibia Src. Astibia S.A., Electroaceros S.A. | 620.000.000 |
| Guztira | 904.235.151 pta. |

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Kontabilitatearen arabera ez da gasturik hitzartu 1998 eta 1999rako, hirigintza-arauek ezarri betebeharrak betetzea deusetan galarazi gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 7an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Endekaturiko inguruen leheneratzea eta ingurugiro-eraginen zuzenketa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Endekaturiko inguruen leheneratzea eta ingurugiro-eraginen zuzenketa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du Nafarroako 1997ko Aurrekontu Orokorretako “Endekaturiko inguruen leheneratzea eta ingurugiro-eraginen zuzenketa” izeneko aurrekontu-kontusailari, 90037-1 lerroari buruz. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak haxe darantzu, hori dela-eta:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

Ez da horri buruzko arauketarik. Jarduketak, oro har, lurzoru publikoan egiten dira edo, hala bada, hitzarmenen bidez.

2.- Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako lagun-

tzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Aurrekontu-kontusailak ez du aldaketarik izan.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

1996ko ekitaldian ez dago hitzartutako krediturik 1997rako.

4.- Buruturiko jarduketaren zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen enpresa, entitate edo erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

Gaur egunera arte burutu diren jarduketa bakarrak Beriain eta Ilurdotzko alde endekatueta egin dira. Kontrolik gabeko hondakindegietan eskuhartzeko asmoa dago, ekitaldia bukatu baino lehen.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Orain arte, behintzat, ez dago 1998 eta 1999 urteetarako konpromisorik

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 11n

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Lurzoruen deskontaminazioa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzoruen deskontaminazioa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 1eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, galdera egin du Nafarroako 1997ko Aurrekontu Orokorretako “Lurzoruen deskontaminazioa” izeneko aurrekontu-kontusailari, 11320-5 lerroari buruz. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hauxe darantzu, hori dela-eta:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

Lurzoru kutsatuen deskontaminazioa bere horretan arautuko duen foru- edo Estatuko araurik ez dago gaur egun. Horrelakorik ezean aplikatzen dira hondakin kutsagarri eta arriskugarri buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Legea eta hori garatzen duen Erregelamendua onesten duen 833/1988 Errege Dekretua, uztailaren 20koa.

2.-Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Aurrekontu-kontusailak ez du aldaketarik izan.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

1996ko ekitaldian 1997rako hitzartutako kredituak 11.687.534 pezeta jotzen du.

4.- Buruturiko jarduketaren zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu

den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen enpresa, entitate edo erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

1. Nafarroako lur kutsatuen inbentarioa.

EMGRISA enpresa publikoari esleitu zaio, Ingurugiro Zuzendari Nagusiaren urtarrilaren 21eko 152/1997 Ebazpenaren bidez, 6.380.000 pezetatan, eta burutua dago jada. Lehenbiziko bi ezagupen maileio dagokie, guztira zortzi diren arren. 0 mailan kutsaturik egon daitezkeen toki guztiak jasotzen dira eta kabinete-datuak, industri katalogoak eta erregistroak eta hainbat administrazioetan dagoen informazioa erabiltzen dira 1. mailan begizko azterketa egiten da eta zelaiko datu-bilketa ere.

Horrela bada, 951 kokagune landu dira 0 mailan eta 279 1. mailan. 2. mailan erabiliko dituzten kokaguneak hautatzen ari dira egun, analisi-tekni-ken bidezko zehaztasunketa egin baita.

2. Bidasoa ibaiaren inguruko bi kokalekuren kontrola eta jarraipena.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak irailaren 30ean emandako 5/1996 Foru Aginduaren bidez esleitu zitzaizkion aipatu lanak COVITECMA enpresari, Lesakako Katazpegi eta Eskolamendiko kutsaduraren bilakaeraren eta Bidasoa ibaian eta horren menpekoetan izan dezaketan eraginaren berri eduki ahal izateko. Urte beteko epea zuten lana egiteko. Hortaz, lanak eginak eta hartuak daude. Esleipenaren kopuruak 7.340.000 pezeta egin zuen: 2.446.000 pezeta 1996ko aurrekontuaren kargura eta 4.894.000 1997ko aurrekontuaren kargura. Urriaren 2ko 1162/97 Foru Aginduaren bidez, komenigarri iritzi zitzaion lanak zabaltzeari, arazoa hobeto definitzeko: 1.308.996 pta.ko gehikuntza izan zen.

3. Nafarroako erdialdeko bost kokaguneraren kutsaduraren kontrola eta jarraipena.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak urriaren 2an emandako 20/1996 Foru Aginduaren bidez esleitu zitzaizkion aipatu lanak EMGRISA enpresa publikoari, hurrengo tokien kutsaduraren bilakaeraren berri eduki ahal izateko, inbentarioko 4. mailaraino zehaztuta baitzeuden: Iruñeko eta Lodosako Inabonos SA lantegiak, Tafallako Fagor-Luzuriaga, Ekaiko Carbones y Destilados del Pirineo eta

Zangozako Papelera de Navarra. Esleipenak 10.889.156 pezeta jo zuen, 2.998.156 1996ko urtea eta 7.087.000 1997an. Burutzeko epea urte betekoa zen eta lanak bukatu daude jada.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Gaur egunera arte ez dago 1998 eta 1999 urteetarako konpromisorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuarekin bat

Iruñean, 1997ko azaroaren 11n

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda. Epaimahaiaren osaketa. Probak hasteko eguna

1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdikoa. Deialdiaren 4.2 oinarriak finkatu duen hamar eguneko epea inork erreklamaziorik aurkeztu gabe igaro denez, bidezko da aipatu zerrenda behin betiko egitea. Era berean, 5 eta 6.2 oinarriarekin bat, beharrezko da epaimahaia osatzea eta hautapoben toki-egunak eta hasteko ordua finkatzea.

Horiek horrela, EBATZI DUT:

1go.- 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betiko egitea.

2gn.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak egin duen proposamenarekin bat, oposizio-lehiaketa ebatzi behar duen epaimahaia honela osatzea:

– Epaimahaikidea: Francisco del Cerro Paúl, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

– Epaimahaikide ordezkoa: Maria Victoria Larrañeta Lizarrondo andrea, Nafarroako Parlamentuko teknikari-diplomatua.

3gn.- Bosgarren oinarriak xedatuarekin bat, epaimahaiko burua aldatzea. Biltzarreko Mahaiko bi kide izendatuko dira horretarako:

– Epaimahaiburua: Joaquín Salcedo Izu jauna, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Lehendakariordea.

– Epaimahaiburu ordezkoa: Fermín Ciáurriz Gómez jauna, Nafarroako Parlamentuko Lehen Idazkaria.

4gn.- Oposizioaldiko lehen ariketa 1998ko urtarrilaren 30ean egingo dela, goizeko bederatzi eta erdietan, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutaren egoitzan, Nabarrieria kalea, 39 zk. (31001-Iruñea).

5gn.- Hauxe ere finkatzea: oposizioaldiko bigarren ariketa egiteko iragarkia eta baita epaimahaiak egoki irizitako beste edozein ere, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan dagoen iragarki-oholean jarriko direla.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía